

Iritsi gara!

Jasone Osoro Igartua

Argitaletxeko koordinatzailea
Aurelio Erdozain

Egilea
Jasone Osoro Igartua

Azala eta marrazkiak
Alai Zubimendi Idarreta

Bildumaren diseinua eta maketazioa
Luis Alonso

Ale hau erabiltzeko eskubide guztiak erreserbatuta daude. Eskubide horien urraketa jabetza intelektualaren aurkako delitutzat har daiteke. Debekatuta dago testu osoa edo zati bat informatikoki erabiltzea edo hedatzea, aurrez baimen idatzia izan gabe. Zatiren bat eskaneatu edo fotokopiatzeko, baimena eskatu behar zaio ALAI ARGITALETXEA argitaletxeari (alai@alai.eus), alearen titularra den aldetik, edo CEDRO (alai@alai.eus), alearen titularra den aldetik, edo CEDRO erakundeari (Centro Español de Derechos Reprográficos, www.cedro.org).

© Testua: Jasone Osoro Igartua
© Marrazkiak: Alai Zubimendi
© Goazen: EITB
@ Alai argitaletxea S.L., 2019

eitb

pausoka

ALAI ARGITALETXEA, SL
alai@alai.eus
www.alai.eus
ISBN: 978-84-120944-0-4
Lege-gordailua: SS 937-2019
EBn inprimatua - Printed in EU.



Iritsi gara!

Jasone Osoro Igartua

#1

Marrazkiak: Alai Zubimendi Idarreta



LEHEN ZATIA

Ea dena sartu dudan motxilan... Soineko loreduna, bakeroak, txupa, kamisetak, bainujantzia, kuleroak eta sujetadoreak, txankletak, nezeserra... Ostras! Harginak garbitzekoa ahaztu zait! Kaka zaharra! Beti berdin! Jope... Eta orain zer egingo dut? Ama dagoeneko Basakabin dago, eta Eli eta Gari honezkero kotxean nire bila etortzeko. Zer ordu da? Agian, astia ematen dit erostera joateko... Watxapa bidaliko diet hauei autobus geltokian ez banago zain egoteko.

Eooooo!!! Hortz-eskubila ahaztu zait eta banoa erostera. Geltoki pareko supermerkatua noa! ✓

Zurik watxapa bidali die lagunei, eta zuzenean motxila bizkarrean hartu du.

Kitto! Bidalita! Halere, motxila astun honekin supermerkatuan sartzea... Geltokian dagoen norbaiti eska diezaioket zaintzeko. Baina nori? Ez dut inortxo ere ezagutzen... Tira, banoa motxila eta guzti berandutu aurretik. Amari kasu egin izan banio... Esan zidan berak eramango zidala motxila, baina nik nahia-



go nuen dena lasai antolatu eta nire kasa ibili. Izango dugu denbora udara osoan elkarrekin egoteko berriz ere. Ufa! Ez dakit ondo egin dudan. Denak inter-railen abentura zoragarriak bizitzen eta ni ezagutzen ez dudan jende mordoarekin udalekuan. Auskalo ze jende klase etorriko den aurten. Amak beti esaten du jende berria ezagutzea aukera paregabea dela. Oso aberasgarria. Asko ikasten dela eta hori guztia, bada-kizue, amek esaten dituzten gauza horiek. Bizitzaz dena jakingo balute bezala. Ez dira konturatzen guk geure kabuz ikasi nahi dugula zer den bizitza. Eta horren arabera, guk ikasitakoaren arabera aterako ditugu gure konklusioak, ezta? Bada, hori, nik nahiago izan dudala Basakabira neuk eramane motxila eta neurre lagunekin joan.

Bere pentsamenduetan dagoela iritsi zaio lagunenez mezua:

Ok! ✓

Primeran. Orain lasaiago ibiliko naiz beharrezkoa bilatzen, ze, konpresak eta tanpoiak ere ahaztu zaizkidala ohartu naiz, eta bidaiarako litxarreriak ere hartuko ditut. Perfekto!

Supermerkatuan jende asko dabil gurdiarekin hara eta hona. Zuri zuzenean joan beharrean behar due-



na eroatera, gailetak eta txokolatea dauden apaletan entretenitu da. Halako batean trumoi-hots modukoa entzun du eta oihu txikia.

—Ups! Joeee.....

Zer gertatu da? Ostras! Tipo horrek bere gurpildun maletarekin pilatuta zeuden madalena guztiak bota ditu!

—Ei! Aizu!! Aizu!!! —deitu dio, baina mutilak ez dio kasurik egin—. Badoa lotsagabe halakoa! Hara, norbait deika daukat —mugikorreko pantailan begiratu du. Gari da—. Bai arraroa. Bai?

—Zuri, gurpil bat zulatu zaigu —Garik.

—Ez esan!

—Bai, neska. Elik atera du gurpila eta ea denon artean lortzen dugun ordezkua jartzea.

—Baina ba al dakizue hori egiten?

—Baimena ateratzeko ikasi genuen, behintzat! —esan dio txantxetan Garik.

—Ja! Hori nahikoa balitz bezala!

—Bestela, aseguru-etxera deituko dugu, eta garbiaren zain egon beharko dugu —etsita, Garik.

—Ezta pentsatu ere! Oso berandu egingo zaigu! —Zurik, kezkatuta.

—Markelek esango lukeen moduan relax, Zuri, re-laaax... —dio telefonoaren beste aldetik Julenek.

—Tira, ni berehala naiz berriz geltokian. Deitu abiatzen zaretenan, ados?

—Nire kontu! —Garik.

—Ayo! —moztu du Zurik—. Hau sinestezina da... Norbaitek begiz jota nauka.

Beharrezkoak hartu eta badoa ordaintzera, baina kutxa ere gainezka dagoela ohartu da.

Aiba! Zenbat jende! Zer arraio! Hau zorte txarra nirena! Nola zen beste tipo hori... Murphy! Nola esaten zuen berak... «Zerbait gaizki ateratu behar bada, gaizki aterako da». Bada, gaur esnatu naizenetik izan dut halako sentazio arraro bat. Espero sentazioa besterik ez izatea, ze, udara osoa dut aurretik, eta ondo hasi nahi nuke.

—Epa, barkatu... —madalena guztiak bota dituen mutila azaldu da Zuriren atzean.

—Bai?

—Zera, presa daukat, eta gel-potea bakarrik ordaindu behar dut. Utziko al zenidake pasatzen?

—E...

—Mila esker!

Hori da hori azal gogorra izatea! —pentsatu du Zurik—. Berriz ere gurpildun maletarena. Nor uste du dela tipo horrek? Munduan presa duen bakarra bera





balitz bezala. Galdera egin eta erantzunaren zain egon gabe ez da, bada, nire aurretik pasatu! Enfin.

—Kaixo, poltsarik nahi? —galdetu dio kutxazainak.

—Ez, ez, mila esker.

Erositakoa motxilan sartu eta badoa azkar demonio irteerara, Gari eta besteak iritsi aurretik geltokian egon nahi du eta. Baina halako batean alarma jotzen hasi da. Pipipipipi....

—Zer da orain? Falta zitzaidana! —sinistu ezinik, Zurik.

—Barkatu... Motxila irekiko al zenidake, mesedez? —supermerkatuko segurtasunaz arduratzen dena gerturatu zaio.

—Zer? —urduri.

—Motxila irekitzeko, mesedez, alarmak jo du, eta protokoloak hala eskatzen du. Ezer lapurtu ez duzula jakiteko da.

—Bua txabal.

Tipoak ez du beldurrik ematen, egia esan, baina gogaikarria izaten badaki. Motxila irekitzeaz gain, barruko dena ateratzeko ere eskatu dio. Kaka ustela! Zurik dena txukun-txukun ordenatua zeukan, eta orain anabasa dirudi inguruak. Kosta zaio ohartzea hortzak garbitzeko eskuilaren alarma kendu gabe ze-



goela. Kutxako neska joan behar izan da Zurik ordaindu duela baieztatzeraz, ze, tiketa ere galdu du. Ez daki non eta nola, baina ez da inondik inora ageri.

Imajinatzen kalabozoan sartzen nautela? —pentsatu du Zurik—. Udara Basakabin pasatzea agian ez da munduko planik onena, baina aukeran kalabozoan baino hobea bada, ezta? Bua, bua, bua... Motxilak lehen ematen zuenaren bikoitza dirudi orain! Eta gainera arropa guztia zimurtuta iritsiko da! Murphy malapartatua!

Autobus geltokian supermerkatuko tipoa dago. Hura ere, Zuri bezala, norbaiten zain. Eta hura ere, Zuri bezala, nonbaitera doa; maleta ikusi besterik ez dago hori jakiteko. Zuri berriz hasi da bakarriketan.

Hau nagia haren ondoan egon beharra. Espero ez hastera berrikeretan, ez dut batere gogorik lagun berriak egiten hasteko. Horretarako izango dut beta Basakabin. Jende berri mordoa aurten. Ea jatorren bat bada goen, interesgarriren bat, umoretsuren bat, artistaren bat, ea saltsa piska bat jartzen duen jendea datorren... Seguru horrenbeste pertsonen artean horietakoak barra-barra egongo direla. Amak beti esaten dit gauza bera, atea irekitzeko jendeari. Asko ikasten dela pertsonen artean egoten.



—Libre dago, nahi baduzu... —esan dio tipoak, bere motxila aulkitik jaso eta lurrean uzten duen bitartean.

—E? A, bale. Mila esker.

Zuri mutilaren ondoan eseri da, eta biak isilik egon dira. Tipoa mugikorrera begira eta Zuri zerura.

—Barkatu —esan dio halako batean gazteak.

—Zer? —Zurik, harrituta.

—Supermerkatukoa... Arrapaladan nenbilen, eta lotsagabeki jokatu dut, ezta?

Neskak sorbaldak altxatu ditu, berdin zaiola adieraziz bezala.

—Orain abisatu didate berandu datozela —esan dio, informazio hori Zurirentzat inportantea balitz bezala.

—Hara —gogo gehiegirik gabe.

—Saloura goaz lau lagun —jarraitu du.

—Pozten naiz —esan dio, ironiarekin.

—Lehenengo aldia da niretzat.

—Saloura zoazela?

—Ez, ez. Lehenengo aldiz lagunekin bakarrik noa la oporretan. Apartamentua hartu dugu.

—Eta maleta horretan zer daramazu? Astebeterako tuperrak janariz beteta? —esan dio Zurik, tipoak dena kontatu nahi diola ikusita.



—Bai zera!

—A ez, noski. Ziur lau lagunok aritzen zaretela sukaldean.

—Laurok ez, baina beste bat eta ni sukaldaritza ikasten ari gara.

—Hara! —harrituta neskak, interesgarria iruditu zaio hori.

—Aitak jatetxea dauka.

—Hori pagotxa zuen lagunena! Kuadrillako bi sukaldari! Aizu, ba, egunen batean gonbidatuko zaitut gurekin afaltzera... zuk prestatutako afarira, noski! Kar kar kar!

—Kar kar kar! —barrez, bera ere.

—Portzierto, Zuri deitzen naiz.

—Ni Gorka. Urte askotarako.

Bi musu eman dizkio, eta Gorka lotsatu egin dela nabaritu du Zurik. Mutila urduri jarri da bat-batean, eta Zuriri grazia egin dio horrek. Egia esan, bada kasualitatea Gorka supermerkatuan aurkitzea eta gero autobus geltokian. Amak esango luke hori seinaleren bat dela. Ama eta bere seinaleak. Gauzak zerbaite-tarako gertatzen direla konbentzitura dago. Zerbaite-tengatik ez, zerbaite-tarako. Edonola, Gorkak normala ematen du eta pertsona normalak gustatzen zaizkio